**Zk-4413**

AGINDUA, 1997ko uztailaren 28koa, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, «Fundación Joven Orquestra de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa» delakoa Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Vitoria-Gasteizko (Araba) «Fundación Joven Orquestra de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa» delakoa Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea aztertu da. Hona hemen,

Aurrekariak

1.– María Carmen Garmendia Lasa andreak, Kultura sailburua baita, Eusko Jaurlaritzaren izenean eta ordez, «Fundación Joven Orquestra de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa» sortu du 1997ko uztailaren 14an Vitoria-Gasteizen, hiri horretako notario eta Bilbaoko Notarioen Elkargokoa den José Antonio Sanz Sáez jaunaren aurrean egindako eskritura publikoaz (953 protokolo zk.). Eskritura horri Fundazioaren Kartaren izaera eman zaio, izaera hori eman zaion egunetik hamazortzi hilabeteko epearen barruan, fundazio horretan beste pertsona fisiko nahiz juridiko batzu sar daitezen fundatzaile moduan, eskritura publiko horretako hirugarren klausulan jarritako baldintzen arabera.

Fundazioa eratzeko eskritura publiko horrekin batera, fundazioaren estatutuak daude.

2.– «Fundación Joven Orquestra de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa» fundazioaren xedea, fundazioaren estatutuetako 3. atalean jasotakoaren arabera, hau da:

«Euskal gazte jendearengan musikak dituen baloreak sustatzea musikarako prestakuntzan laguntza emanez, profesional mailan aritu aurretik. Musikaren prestakuntzan diharduten hainbat sektoreren arteko lankidetzarako esparru ere izango da fundazioa, gazteei errealitatea sakon ezagutzen eta beren prestakuntza hobetzen lagunduko diena.

Helburu zabal horien artean, jarduera zehatz garrantzitsuenak eta berehala egitekoak, hauek izango dira:

– «Euskal Herriko Gazte Orkestra» sortzea eta garatzea.

– Musikaren inguruko hainbat gairekin lotutako ikastaroak eta biltzarrak antolatzea eta musika prestakuntzarako bekak eta laguntzak ematea.

– Musikaren inguruko kezka duten gazteei informazioa eta arreta eskaintzeko zentro bat eratzea.

– Fundazioak bere helburuekin loturik dauden beste jarduera batzuk ere egin ahalko ditu, bere xedeak lortzea bideratuko dutenak.»

**N°-4413**

ORDEN de 28 de julio de 1997, del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa».

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada «Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa», de Vitoria-Gasteiz (Alava), en base a los siguientes:

Antecedentes de hecho

1.– Por Dña. María Carmen Garmendia Lasa, Consejera de Cultura, actuando en nombre y representación del Gobierno Vasco, se ha constituido la Fundación denominada «Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa», mediante escritura pública otorgada en Vitoria-Gasteiz el día 14 de julio de 1997 ante el Notario de la misma ciudad, del Ilustre Colegio Notarial de Bilbao, D. José Antonio Sanz Sáez (N.º protocolo 953), a la cual se le otorga carácter de Carta Fundacional para que en el plazo de dieciocho meses siguientes a la fecha de otorgamiento, puedan adherirse otras personas físicas o jurídicas con carácter de fundadores, de acuerdo con las condiciones fijadas en la cláusula tercera de la citada escritura pública.

A la referida escritura pública de constitución fundacional se acompañan los Estatutos fundacionales.

2.– El fin fundacional de la denominada «Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa», según establece el artículo 3.º de los Estatutos fundacionales es,

«La promoción de los valores musicales entre los jóvenes vascos, mediante el apoyo a su formación previa al ejercicio musical profesional. La fundación constituirá, asimismo, un marco de colaboración entre los diferentes sectores implicados en la formación musical que permita a los jóvenes un amplio conocimiento de la realidad coadyuvando a la mejora de su formación.

Dentro de estos amplios objetivos, tendrá como actividades concretas mas importantes e inmediatas las siguientes:

– La creación y desarrollo de la «Joven Orquesta de Euskal Herria».

– Organización de cursos y Congresos relacionados con diferentes aspectos musicales, así como otorgamiento de becas y ayudas a la formación musical.

– Establecimiento de un centro de información y atención a jóvenes con inquietudes musicales.

– Asimismo la Fundación podrá realizar cualesquiera otras actividades relacionadas con su objeto, conducentes a la realización de las finalidades que le son propias.»

3.– Fundazioaren egoitza, fundazioaren estatutuetako 5. atalean adierazten den moduan, hau da: Tomas Zumarraga Behatsuaren kalea, 48 zk., 2., E 1, Vitoria-Gasteiz (Araba). Jardute eremua Euskal Herria izango da.

4.– Fundazioaren hasierako dotazioa hogei milioi (20.000.000) pezetakoa da. Zenbateko hori, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko 12/1994 Legearen 9. atalean jarritakoa betez, oso-osorik jarri da; dagokion banketxean sartu izanaren agiriak hala egiaztatzen du.

Ondarea askitzat jotzen da fundazioaren lehenengo programa lortzeko, espedientearekin batera aurkeztu den ekonomia-azterketak erakusten duenez. Hala eskatzen du Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 9. atalak.

5.– Fundazioaren gobernua eta ordezkotza Patronatuari utzi zaizkio, organo gorena den aldetik. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 11. atalean jartzen duen moduan.

6.– Patronatua, estatutuetako 9. atalean ezarritakoaren arabera, fundatzaile guztiek osatuko dute, bai hasierako fundatzaileak, bai Fundazioaren Kartan ezarritako epean fundazioan sartzen diren fundatzaileek. Esandakoa gorabehera, Fundazioaren Karta eman eta ondorengo hamazortzi hilabetetan jardungo duen patronatua, fundazioa eratzeko eskrituraren laugarren klausulan jartzen duenez, honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria: María Carmen Garmendia Lasa andrea, Kultura sailburu den aldetik.

Bokal: German Ormazabal Artolazabal jauna, «Orquesta de Euskadi-Euskadi Orkestra, S.A.» sozietate publikoaren zuzendari nagusi den aldetik.

Bokal: Amaia Rodríguez Hernandorena andrea, Kultura Saileko Kultura Sortu eta Zabaltzeko zuzendari den aldetik.

Bokal: Miguel Ortega Abad jauna, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerga Administrazioko zuzendari den aldetik.

Guztiek onartu dituzte bern karguak, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1. atalean jasotako moduez.

Zuzenbidezko oinarriak

*Lehenengoa*.– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio, agindu-bidez fundazioaren eratzea inkribatzeko espedientea erabakitzea, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. atalean eta Euskal Autonomi Elkarteo fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza antolatu eta ihardunean jartzeko Arautegia Onar-

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5.º de los Estatutos Fundacionales, queda fijado en Vitoria-Gasteiz (Álava), C/ Beato Tomás de Zumarraga, n.º 48- 2.º E 1, y el ámbito territorial de actuación se extiende principalmente al País Vasco.

4.– La dotación inicial de la Fundación, asciende a veinte millones (20.000.00 PTA) de pesetas, la cual se encuentra desembolsada íntegramente en cumplimiento del artículo 9 de la Ley 12/1994, de Fundaciones del País Vasco, tal y como se desprende de la correspondiente certificación de ingreso en la entidad bancaria correspondiente.

La dotación patrimonial, se acredita como suficiente para la consecución del primer programa fundacional, en virtud del estudio económico adjuntado al expediente, en cumplimiento del artículo 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

5.– El gobierno y representación de la Fundación se confía al Patronato como órgano supremo, cuyos miembros desempeñaran sus cargos con carácter gratuito, tal y como prevé el artículo 11 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato se encuentra integrado conforme a lo establecido en el artículo 9.º de la norma estatutaria por todos los fundadores, ya sea por el fundador inicial como por cuantos otros fundadores puedan adherirse como tales en el plazo fijado por la Carta Fundacional. No obstante lo anterior, el Patronato constituyente para el periodo de los dieciocho meses siguientes al otorgamiento de la Carta fundacional estará compuesto inicialmente, conforme dispone la cláusula cuarta de la escritura de constitución fundacional, por las siguientes personas:

Presidenta: Dña. María Carmen Garmendia Lasa, en su condición de Consejera de Cultura.

Vocal: D. German Ormazabal Artolazabal, en su condición de Director General de la Sociedad Pública Orquesta de Euskadi-Euskadi Orkestra, S.A.»

Vocal: Dña. Amaia Rodríguez Hernandorena. en su condición de Directora de Creación y Difusión Cultural del Departamento de Cultura.

Vocal: D.Miguel Ortega Abad, en su condición de Director de Administración Tributaria del Departamento de Hacienda y administración Pública.

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de fundaciones del País Vasco.

Fundamentos de Derecho

*Primero*.– Corresponde al Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, dictar, mediante Orden, la Resolución del expediente de inscripción de constitución de la fundación en base a lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 7.a) del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el

tzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 7-a) atalean agindutakoaren arabera.

*Bigarrena.–* Legitimazioa daukan pertsona batek hasiarazi du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. ataletan eta urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 31. eta 34. ataletan agindutako baldintzak bete dira.

*Hirugarrena.–* Bai Kultura Sailak, bai Euskal Autonomi Ekarteko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeak, fundazioaren eraketa inskribatzearen aldeko txosten bana eman dute, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 36.3 eta 4 eta 40.2 ataletan agindutakoaren arabera eta Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza antolatu eta ihardunean jartzeko Arautegia Onartzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 8.3.a) eta 13. ataletan agindutakoa betez.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomi Elkarteko Autonomi Estatutua; Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza antolatu eta ihardunean jartzeko Arautegia Onartzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretua eta aplikagarri diren gainerako arau orokorrak. Ondorioz,

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak hau

ERABAKI DU:

*Lehenengoa.–* Vitoria-Gasteizko (Araba) «Fundación Joven Orquestra de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa», fundazioa Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

*Bigarrena.–* Fundazio hori, dituen helburuak kontutan hartuta, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, Kultura, Gaztedia eta Kirolen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza antolatu eta ihardunean jartzeko Arautegia Onartzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 14. atalean jasotakoaz bat etorriz.

*Hirugarrena.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen duenez, bere aurka administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez daiteke Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, erabakia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epearen barruan.

Reglamento de organización y funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones.

*Segundo.–* El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco y 31 y 34 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre.

*Tercero.–* Tanto el Departamento de Cultura, como la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, en cumplimiento lo dispuesto los artículos 36.3 y 4 y 40.2 de la Ley 12/1994,de 17 de junio, de fundaciones del País Vasco y, 8.3.a) y 13 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco, han informado favorablemente la inscripción de la constitución de la citada Fundación.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de fundaciones del País Vasco, el Decreto 404/1994, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones, y demás normas de general y pertinente aplicación.

El Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social,

RESUELVE:

*Primero.–* Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco con esta fecha, de la constitución de la denominada «Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa», de Vitoria-Gasteiz (Álava), así como la composición inicial del Patronato, integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

*Segundo.–* Clasificar a dicha fundación en virtud de sus fines en la Sección 3.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones culturales, juveniles y deportivas, conforme lo dispuesto en el artículo 14 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco.

*Tercero.–* Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación de la misma.

Errekurtsoa aurkezteko ezinbestekoa izango da aurretiaz organo hau jakinaren gainean jartzea, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 110. atalean agindutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 1997ko uztailaren 28a.

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte
Segurantza sailburua,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-4414

AGINDUA, 1997ko uztailaren 29koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, eliza katolikoaren elizbarrutien eta erlijiosoen Seminario txikientzako dirulaguntzen erregimena arautzen duena.

Eliza katolikoaren elizbarrutien eta erlijiosoen Seminario txikiak zenbait baldintza betetzetik salbuetsita daudenez, ezin dira sartu hezkuntza hitzarmenen araudia onartzeari buruzko irailaren 8ko 293/1987 Dekretuan hezkuntza hitzarmenak aplikatzeko legeak ezartzen dituen aurrikuspenetan.

Irakaskuntza eta kultur gaiei buruz Espainiako Estatuak eta Batikanok 1979ko urtarrilaren 3an hartutako Akordioaren 13. atalean xedatzen denez, eliza katolikoak dituen ikastetxeek eta horietan dihardutenikasleek dirulaguntzak, bekak, hobari fiskalak eta beste dirulaguntza batzuk, Estatuarenak diren ikastetxeei eta horietan dihardutenikasleei Estatuak eman diezazkienak alegia, edozein gradutan eta espezialitatetan eskuratzeko eskubidea izango dute, aukera berdintasunerako erregimenarekin bat etorriz. Aipatu akordioa 1979ko abenduaren 4ko Xedapenaz sendetsi zen.

Bestalde, eliza katolikoaren elizbarrutien eta erlijiosoen seminario txikiei, ikastetxe pribatu bezala, baimenak emateko araubidea ezartzen zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1994ko otsailaren 28ko Aginduak.

Ondorioz, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Euskal Autonomi Elkartean kokatutako eliza katolikoaren elizbarrutien eta erlijiosoen Seminario txikiei deia egitea 1997/98 ikasturteko laguntzetarako.

Para la interposición del recurso será requisito imprescindible que con carácter previo se comunique a este órgano la interposición del mismo, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 110 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 1997.

El Consejero de Justicia, Economía,
Trabajo y Seguridad Social,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-4414

ORDEN de 29 de julio de 1997, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el régimen de Subvención a Seminarios Menores Diocesanos y Religiosos de la Iglesia Católica.

Los Seminarios Menores Diocesanos y Religiosos de la Iglesia Católica se encuentran exceptuados del cumplimiento de una serie de requisitos que imposibilitan su encaje en las previsiones legales que, para la aplicación de Conciertos Educativos, establece el Decreto 293/1987, de 8 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de Conciertos Educativos.

El artículo 13 del Acuerdo de 3 de enero de 1979, ratificado por instrumento de 4 de diciembre de 1979, entre el Estado Español y la Santa Sede sobre enseñanza y asuntos culturales, dispone que los centros de enseñanza de la Iglesia de cualquier grado y especialidad y sus alumnos tendrán derecho a recibir subvenciones, becas, beneficios fiscales y otras ayudas que el Estado otorgue a centros no estatales y a estudiantes de tales centros, de acuerdo con el régimen de igualdad de oportunidades.

Por otra parte, la Orden de 28 de febrero de 1994 del Ministerio de Educación y Ciencia establecía el régimen sobre autorizaciones como centros docentes privados de los Seminarios Menores Diocesanos y de Religiosos de la Iglesia Católica.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Convocar ayudas para el curso escolar 1997/98 a los Seminarios Menores Diocesanos y Religiosos de la Iglesia Católica ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco.